

Ikerketa kritikoa, eztabaida eta gizarte-konpromisoa ikerlan akademikoetan

Ekarpenak, talde-eraikuntzako esperientzia batetik

Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz



Ikerketa kritikoa, eztabaida eta gizarte-konpromisoa ikerlan akademikoetan

Ekarpenak, talde-eraikuntzako esperientzia batetik

Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz

Ikerketa kritikoa, eztabaida eta gizarte-konpromisoa ikerlan akademikoetan.
Ekarpenak, talde-eraikuntzako esperientzia batetik

Egileak: Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz
2019ko abendua

Argitaratzailea:



Finantziatzailea:



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea Eraikina
Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 - 48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU. Carlos Santamaria Zentroa
Elhuyar Plaza 2 - 20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
Nieves Cano kalea 33 - 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87


Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.
Itzulpena: Labayru Fundazioa
Curruscuren argazki batean oinarritutako azalaren irudia (www.curruscu.com)
ISBN: 978-84-16257-52-2
Lege-gordailua: BI 00245-2020



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Aurkibidea

Aurkezpena	5
1. Proposamenaren justifikazioa	7
2. Subjektu kritiko eraldatzaileen ezaugarriak	10
3. Mintegien metodologia eta planteamenduak	13
4. Prozesuari egindako ekarpenak	34
5. Ondorioak. Prozesuaren ikaskuntza garrantzitsuak	39
1. eranskina. Mintegietako parte-hartzaileak	43



Goi-mailako irakaskuntzak hala hezkuntzan
nola ikasleen mugikortasunean izango duen
rola funtsezkoa da, eta horren arabera ikusiko
da ea ideal iraultzaile berria sor daitekeen,
demokraziaren eta berorren etorkizunaren idealak
lantzeko xedez.

Henry A. Giroux (2019)

La guerra del neoliberalismo contra la educación superior.



Aurkezpena

Dokumentu hau Hegoako (Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketen Institutua) hezkuntza-taldeak sustatutako *"Hariak ehunduz II. Unibertsitatean Hezkuntza emantzipatzaileko proposamenak taldean eraikitzea"* proiektuaren barruan dago. Hezkuntza-berrikuntzarako proiektu horren xedea eztabaidako eta talde-eraikuntzako partaidetza-guneak sortzea izan da –unibertsitate- eta gizarte-eragileekin lankidetzan–, hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegia bizitzaren iraunkortasunarekin konprometitutako Unibertsitatearen borondatea islatzen duten curriculumekin lotzeko.

Ildo horretan sustatutako jardueretako bat graduoko eta graduondoko ikasleentzako mintegi batzuk sustatzea izan da, haien ikerlanak (Gradu Amaierako Lanak eta Master Amaierako Lanak) hezkuntza kritiko emantzipatzailearen ikuspegitik bideratzeko. Ekimen hori abiarazi genuen Bilbon, 2019ko martxoaren 13an, 20an eta 27an, eta proposamenaren xedea subjektuei (ikasleak) laguntzea izan zen, lankidetzan eta eztabaida horizontalean (ikasleak, irakasleak eta gizarte-eragileak) oinarrituta.

Minegiokin genuen azken helburua ikasleetan ikuspegi etikoak eta gaitasunak garatzen laguntzea zen, haien bidez errealitatea ulertzeko, beren buruak munduan kokatzeko eta beren eraldaketa ahalbidetzeko, hezkuntza kritiko emantzipatzailea hedatuz, kasu honetan, Gradu Amaierako (GrAL) eta Master Amaierako Lanetan (MAL). Ildo beretik doaz Rafaela García, Auxiliadora Sales et al (2009:205), hau esatean: "arreta bereziaz behatu behar ditugu konpetentzia etikoak, irakaskuntzaren produktibitatearekin eta errentagarritasunarekin lotutako eskakizun berriek Unibertsitatearen xedea desbidera baitezakete, berorren oinarri hezitzailetik eta justiziaren eta ekitatearen aldeko konpromiso sozialetik".



Jarduera hori gauzatu eta ebaluatu ondoren, dokumentu hau prestatu dugu, unibertsitateko komunitateak gauzatutako prestakuntza-esperientzia hau ezagutzera emateko; horretarako, sakon hausnartu dugu zein diren subjektu politikoak eta zer rol izan beharko luketen, zer inplikazio dituen garatutako metodologiak, zer ekarpen dauden ekimenaren oinarrian, eta zein diren prozesu osoko ikaskuntzarik garrantzitsuenak.

Aurkezpena amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten guztiei, ekimenean agertu duten interes eta gogoagatik, eta bizitzarako hezkuntzarekiko duten konpromiso aktiboagatik. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu Marta Barandiaran Galdós irakasleari bere laguntzagatik, harekin eskuz esku lankidetzan aritu baikara, saio bakoitzean bermatzeko ikasleek planteatutako ikerketei aukera berriak iradokiko zizkiela eta, aldi berean, kultura kapitalistaren mitoei aurre egiteko gai den ezagutzara hurbiltzen gaituzten ikuspegi kritikoenak emango zizkiela.

1. Proposamenaren justifikazioa

Bizi dugun testuinguruaren (soziala, ekonomikoa, kulturala, politikoa...) gaur egungo egoera dela-eta, presazkoa da topaguneak proposatzea eragileentzat, zeinetan aukera izango duten ordena nagusiari hezkuntzaren bidez aurre egiteari buruz hausnartzeko eta xede horretako subjektu kritiko eraldatzaileen rol nagusia kokatzeko.

Globalizazio neoliberalerako eta krisi sistemikoko testuinguru horri esker uler daiteke duela urte batzuetatik eraikitzen eta unibertsitatearen esparruan ezartzen ari garen hezkuntza kritiko emantzipatzaileko proposamen hori. Bizitzaren iraunkortasunaren aldeko proposamenetara bideratzeko, errotiko aldaketa egin behar da sortzeko, kontsumitzeko, harremanak izateko eta parte hartzeko moduetan, baina beste era batera ezagutzen hasi behar dugu, baita ere. Agertoki berri baterako baldintzak jarri behar ditugu, non aukera egongo den pentsatzeko nolako mundua eta nolako gizarte-antolaketa behar den gizarte inklusiboa bermatzeko, justizia sozialaren, ekitatearen eta elkartasunaren printzipioak bete daitezen¹.

Guretzat, hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea da hezkuntzako sozializazio kritikoa sustatzeko xedea duena, tokiko eta nazioarteko testuinguruak guztiz ulertzeko beharrezkoa den jakintza sustatuko duena;

1 Gure ustez, justizia soziala, ekitatea eta elkartasuna funtsezko printzipioak dira *beste mundu posible* batzuk eraikitzeko. Alabaina, azpimarratu nahi dugu printzipio horiek ez direla unibertsalak; hau da, kasu bakoitzean, testuinguruak eta sexuaren, generoaren, etniaren, erlijioaren, adinaren, maila ekonomikoaren eta abarren arloko desberdintasunek ezartzen dute berorien esanahia, eta ez dituzte ezkututzen gizarte guztietan gertatzen diren desberdinkeriak.

gizartea aldatzeko ezagutza erabilgarria sortuko duena, irakurketa etiko eta eraldatzaileen bidez eraikia, zeinak pertsona eta komunitate guztien eskubideak indartuko dituzten eta haien emantzipazio-interesei erantzungo dieten. Ildo horretan, hezkuntza emantzipatzailea ez da planteamendu itxia, etengabe asmatzen da eta etengabeko elkarrizketan dago aukera emantzipatzaileetara doazen subjektu politikoekin.

Hau da gure erreferentziazko esparru nagusia: hezkuntza kritiko emantzipatzailea, iraunkortasuna eta feminismoak oinarri nagusi dituena. Ikuspegi pedagogikoa beste ikuspegi batzuekin osatzen da: diskurtso ekosozialak, dekolonialak, interseksionalak, garapenaren kritika, etab.



Esparru teoriko honek ezagutza sortzeko ditugun premisei aurre egiteari, eragile kritiko modura dugun posizioari –irakasle, ikertzaile, ikasle edo gizarte-talde garen aldetik– eta gure hezkuntza-ekintzari zentzua emateko ditugun tokiei buruz hitz egiten digu; hala, esparru teoriko horretarako, beharrezkoa da gure lana garatzen den baldintzekin erkatzea –lan-arloan zein militantzian–, eta etengabeko elkarrizketa egotea, sortutako ezagutza hori garrantzitsua izateaz gain, soziala eta politikoa izan dadin.

Unibertsitateak funtsezko rola du ezagutzaren eraikuntzan, irakaskuntzako eginkizunaren bidez, baina, batez ere, ikerkuntzako eginkizunaren bitartez. Ikerkuntzaren helburua izan beharko litzateke errealitatea kritikoki ulertzea, pertsonen bizitzan eragina duten fenomenoak ikuspegi ekosozialetik aztertzea eta aurrez aurre ditugun arazoei konponbideak bilatzeko joera emantzipatzailea erabiltzea.

Ikerkuntza kritikoaren alde egiten dugu; ikerkuntza horrek, “norbere botere-posizioa hauteman ondoren, gure gizarteetan dauden zapalkuntzak eta hegemonizazio-prozesuak identifikatu eta horien aurrean jardun nahi du” (Marcel Balasch *et al.*, 2005:133). Beste batzuekin (ekintza politikoa) elkartuta egiten den ikerkuntza, zeinak ikertzailearen eta ikertutako subjektuaren arteko binomioa apurtu nahi duen, arazo garrantzitsuak aztertu eta konpontzen saiatzeko, tartean dauden subjektuen pertzepzioetik eta jakintzetatik abiatuta.

Helburu horrekin, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitatearen zeregina berriz pentsatzea –bereziki unibertsitateko irakasle eta ikasleena–, ezagutza sortzeko testuinguruei dagokienez, eta mundu justu eta bidezkoagoa sortzen egin ditzaketen ekarpenei begira.

Horretatik abiatuta, gure lanarekin unibertsitate-komunitateko eragileak ahalduntzea lortu nahi dugu, aldaketen eta trantsizioaren protagonistak diren aldetik. Izan ere, ez da nahikoa ezagutza kritikoa sartzea, norbaitek, hots, subjektu politikoek martxan jartzen ez badute. Aldaketarako subjektu kontzienteak behar dira, zeinak ekintza eraldatzaileak sustatuko dituzten –banakakoak eta, batez ere, taldekoak–, proiektu demokratiko bat indartzeko (inoiz amaitzen ez dena), eta bizitzen ari garen globalizazio bortitzari erronka etikoak planteatzeko.

Uste dugu funtsezkoa dela Hegoan azken urteotan egin dugun lanari unibertsitatearen esparruan jarraipena ematea eta unibertsitate-komunitate osoaren laguntzan sakontzea, subjektu politikoen eraikuntzan nola lagundu eta horietan kontzientziatzeko eta ahalduntzeko prozesuak nola sustatu jakiteko.

2. Subjektu kritiko eraldatzaileen ezaugarriak

Hauek dira ekimen honetan nahastutako subjektu politikoak: batetik, unibertsitate kritiko eta eraldatzailearekiko konpromisoan rol garrantzitsua dutela uste duten unibertsitate-eragileak (ikasleak eta irakasleak);

bestetik, konpromiso hori indartu eta beren azterketa politikotik eta gizarte-ekintzako praxitik abiatuta aldaketa kritikorako ezagutza eman dezaketen taldeak (GGKEak eta gizarte-mugimenduak).

Subjektu horiek funtsezko eginkizuna dute hezkuntza formalaren arloan, baina, horrez gain, ezinbestekoak dira justizia sozialaren, ekitatearen eta elkartasunaren printzipioetan oinarritzen diren gizarteak eraikitzeko. Ikasleen, irakasleen eta gizarte-eragileen zereginaren barruan dago jakintza bizitza publikoarekin eta pentsamendu erradikalaren sorkuntzarekin lotzea (Giroux, 2019).

Ikasleen kasuan, ikaskuntza-prozesuko partaidetzan eten bat hauteman dugu; horren adierazgarri da ez dituztela behar beste estrategia ikaskideekin eta beste unibertsitate- eta gizarte-estamentu batzuekin topatzeko eta eztabaidatzeko, are gehiago, partaidetza hori horizontala izatea nahi badugu –eta hori ezinbestekoa da subjektuen artean erlazionatzeko eta ezagutzeko beste modu batzuk probatzeko orduan–.

Unibertsitateko prestakuntzako logika nagusietan, ezagutza teknikoetan eta teknologia berrietan profesionalak izango direnak prestatzea da lehentasuna; horren aurrean, gure xedea da ikasleek errealitatea modu kritikoan uler dezaten –beste subjektu batzuekin lankidetzan–, beren arazoan konponketan inplikatu daitezten eta beren ikerketa-jarduera *beste mundu posible batzuei* ekarpenak

egitearekin lotzeko aukera aprobetxa dezaten. Hau da, kontua da subjektu kontzienteak bilakatzea, kokatuta eta prestatuta egongo direnak komunitateko bizitzan justizia sozialeko, ekitateko eta iraunkortasuneko printzipioetan oinarrituta parte hartzeko.

Unibertsitateko irakasleek gero eta presio handiagoa dute kapitalismo neoliberalaren proiektua bereganatzeko; hori argi geratzen da ikusita nola curriculum eta irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak merkatuaren premietara bideratzen diren, horren interesak errepikatu eta kopiatzera behartuta. Rol instrumental hutsa dute, eredu zientifiko positibista defendatzeko. Planeamendu horretatik, sartuta dagoen denbora eta errealitate sozialarekin lotutako ezagutzatik aldentzen da Akademia.

Ekimen honetan zabaldu nahi dugun jardunbide pedagogikoak enfasi berezia jarri zuen hezkuntzaren ahalmen eraldatzailean, hots, irakasleek curriculum sozialki garrantzitsuak diren arazoengatik, lurraldearekin eta aldaketaren protagonistekin lotuta, antolatzeko duten aukeran. Ikasgelatik irten, ikasleen interes eta esperientziak ezagutu, eta beste ikuspegi eta erreferente epistemologiko batzuetara irekitzea dira garrantzia eman zitzaien proposamenetako batzuk, eredu eurozentrikoei eta sarritan hezkuntza-jardueraren oinarrian dauden zapalkuntza-logikei aurre egiteko.

Azkenik, gizarte-eragileek ez dute babes akademikorik eta, ondorioz, unibertsitatearekiko eztabaidarako eta topaketarako gune oso gutxi daude.



Daudenean, puntualak dira. Kasurik onenean, irakasle kritikoek eta/edo Akademiarekin lankidetzan aritzearen garrantzia ezagutzen duten gizarte-eragileek sustatzen dituzte. Baina ezin dugu ahaztu, beste batzuetan, Unibertsitateak gizarte-mugimenduetara hurbiltzea sustatzen duenean, erauzketa-logikak daudela atzean. Nahiz eta Unibertsitatearen erretorikak gizartearekiko eztabaida-guneak sortzearen alde egiten duen, beste joera batzuk gainjartzen dira, zeinen helburuak, oro har, merkatuaren interesen mende dauden.

Gizarte-eragileek (Unibertsitate Kritikoa Sarea, Mugarik Gabeko Ingeniaritza eta Emaús Gizarte Fundazioa) mintegietan eman ziguten partaidetza aktiboak eta laguntzak garbi erakusten dute nola hezkuntza kritiko emantzipatzaileak ikaskuntza akademikoa eta gizarte-esperientziak lotu nahi dituen. Gizarte-erakunde eta -mugimenduekin egindako lanak ikaskuntza interesgarriak sortzen ditu, ez soilik jardunbide eraldatzailearekin lotuta dagoelako, baita ezagutza sortzeko erabiltzen den logikagatik, zeina askotariko subjektuen arteko topaketan eta *jakintzen arteko elkarrizketan* sortua den.

Hezkuntza kritikoak, proposamen politiko gisa, gizarte-aldaketako benetako prozesuak sustatzeko gai diren subjektuak indartu nahi ditu. Adierazpen emantzipatzaileetan parte hartzeko prozesuan ere gatazkak daude eta menderakuntza-harremanak sor daitezke. Feminismotik eta bizitzaren iraunkortasunetik aztertuta, tresna estrategikoak lor daitezke hondamena sortzen duen botere autoritario hori hautemateko eta ahalduntzen duten beste botere mota batzuekin aurrez aurre jartzeko.

Unibertsitateari dagokio guneak lagatzea, subjektu kritiko horiek beren eraldaketa-prozesuan indartu daitezen, eta haien ezagutzak bizitzarekin konprometitutako unibertsitatearen irakaskuntzako eta ikerkuntzako joeran sar daitezen.

3. Mintegien metodologia eta planteamenduak

Mintegietan erabilitako metodologia deskribatu aurretik, esperientzia horretarako ezarri genituen helburuez eta lantaldeaz arituko gara.

Programa 3 saiotan egituratuta zegoen, bakoitza 3 ordukoa, eta helburu hauek zituen:

- Unibertsitatearen esparruan, gizartea eraldatzeko garrantzitsua den ezagutzaren sorkuntza ikertzeari buruz irrika sortzea.
- Askotariko subjektuen (ikasleak, irakasleak eta gizarte-eragileak) arteko topaketa, eztabaida eta hausnarketa sortzea, GrAL eta MAL lanak hezkuntza kritikoko ikuspegitik garatzearekin lotuta.
- Jarraibide pedagogiko eta metodologikoak sortzea taldean, GrAL eta MALetan hezkuntza kritiko eta emantzipatzailearen ikuspegia bermatzeko.
- Mintegietan sortutako prozesua eta ikaskuntzak biltzea, geroago argitalpen batean sistematizatzeko.

Erabaki genuen ekimen hau probatzeko erabili nahi genuen taldea txikia izango zela, batetik, GrAL eta MALen proposamen bakoitzari modu pertsonalizatuan erantzuteko eta, bestetik, prozesua taldean



sortzeko, parte-hartzaile guztien artean. Hala, guztira 23 pertsonako taldea² sortu genuen (graduoko 2 ikasle eta graduondoko 9 ikasle; 6 irakasle; eta gizarte-eragileen 6 ordezkari).

Mintegiotan, nagusiki, metodologia praktikoa sustatu genuen, eta helburu bikoitza zuen: batetik, edukien zentzua ulertzea; bestetik, konponbide kolektiboak bilatzeko hausnarketa egitea, hezkuntza emantzipatzailearen oinarriekin bat datorren ikuspegitik prestatzeko GrALak eta MALak. Jardunbide pedagogiko horrek ikerketa kritikoaren, ikaskuntza kolektiboaren eta munduan parte hartzeko konpromisoaren garrantzia azpimarratzen du.

Mintegien helburua parte hartzaile guztientzat ikaskuntzako esperientzia izatea zen, haien kolektiboa –ikasleak, irakasleak edo gizarte-eragileak– eta jatorrizko diziplina edo ezagutza-arloa gorabehera. Hala, sorkuntza kolektiboa eta gaitasunak sortzera bideratutako metodologia erabili genuen, hausnartzeko eta proposamenak egiteko prozesuaren jarduketan berdintasuna oinarri hartzen duen gune batean, desberdintasuna onartzetik eta horizontaltasunetik abiatuta. Arreta berezia jarri genion taldekide guztien jakintzak eta esperientziak aintzat hartzeari, eztabaida estimulatzailerako sortzeko gizarte-aldaketarako ezagutza kritiko eta garrantzitsuagoa sortzeko moduari buruz, kasu honetan, ikerlan akademikoaren bitartez.

Esperientzian parte hartu zuten graduoko eta graduondoko ikasleek beren lanen hasierako proposamenak aurkeztu zizkiguten eta, 3 saioetan, horiei buruz galdetzen, aztertzen eta hausnartzen joan ginen, ikerketa-ildoak bertaratutako gainerako kideen, irakasleen eta gizarte-taldeek ekarpen eta begiradekin aberastu arte.

2 Mintegietan parte hartu zuten pertsonen zerrenda 1. eranskinean dago.

Mintegiaren 1. saioa (2019ko martxoaren 13a)

Lehenengo saioa hasteko, labur aurkeztu genituen ekimena, metodologia, parte-hartzaileak eta haien itxaropenak. Jarraian, prozesu osoari zentzua ematen dion esparru teorikoa azaldu genuen –hezkuntza kritiko emantzipatzailea– eta agerian jarri genuen proposamen honek gizarte-eraldaketarekin eta utopia egingarrien mundu bat eraikitzearekin partekatzen duen jarrera ideologikoa. Hala, krisi sistemikoaren testuingurua marraztu genuen, horren jatorria ulertu ahal izateko; hezkuntzak ezagutzaren arloarekiko duen interesa argitu genuen; eta hezkuntzako ikuspegi honen funtsezko printzipioak azaldu genituen³.

Lehenengo saioa osatzeko –nagusiki teorikoa izan zen–, talde eta pertsona batzuen 3 esperientzia aurkeztu genituen; talde eta pertsonok denbora asko daramate lanean, GrALek eta MALek ezagutza eta ikaskuntza partaidetzarekin eta gizarte-aldaketarekin lotzeko ematen dituzten aukerei buruz hausnartzen⁴.

Amaitzeko, “1. Fitxa. GrALerako edo MALerako proposamena” fitxa entregatu genien ikasleei; haiek bete eta gainerako taldekideei igorri ondoren, aukera izan genuen pentsatzeko, hausnartzeko eta arazoak ikertzeko, ikerketa-proiektuetan jasotako gaietatik abiatuta. Fitxan eskatzen den informazioa gehenez ere bi orritan betetzeko eskatu genien.

3 Ez da dokumentu honen xedea arreta esparru teorikoaren oinarrien ulermenean jartzea. Hezkuntza kritiko emantzipatzailearen proposamena eta berorren printzipio orientatzaileak ezagutzeko, gaiari buruzko informazio sakonagoa ematen duen erreferentzia hau iradokitzen dugu: La educación crítica emancipadora. Diagnóstico en la Universidad del País Vasco 2011-2015 (Amaia del Río eta Gema Celorio, 2018).

4 Dokumentu honen 4. atalean jasotzen dira horri buruzko ekarpen nagusiak.

1. Fitxa. GrALerako edo MALerako proposamena

Ikaslea
Gradua edo graduondoa
Gaia formulatu eta zedarritu
Aukeratutako gaiaren justifikazioa
Identifikatu zure ikerketa-galderak

Iturria: Hegoako hezkuntza-taldea eta Marta Barandiaran Galdós.

Saioen artekoak

Marta Barandiaran irakasleak eta Hegoako hezkuntza-taldeak osatutako Batzordeak hasierako balorazioa egin zuten entregatutako fitxei buruz, ondorengo hausnarketan lagunduko duten galderak prestatzeko.

Mintegiaren 2. saioa (2019ko martxoaren 20a)

Bigarren saio bat hasi genuen, zeinetan ikasle bakoitzak bere ikerketa-lana aurkeztu zuen (gaia, justifikazioa eta lehenengo hipotesiak), talde guztiak (ikasleak, irakasleak eta gizarte-eragileak) proposamen guztiak ezagut zitzan. Jarraian, "2. Fitxa. Hezkuntza emantzipatzailearen printzipioarekiko loturak" fitxa banatu genuen, Gradu Amaierako Lanetan eta Master Amaierako Lanetan egin zitezkeen loturak irudikatzeko. Argitu behar da printzipio horiek ikerlan baten oinarritzko egituraren hainbat gunetan isla daitezkeela (helburuak/galderak, esparru teoriko kontzeptuala, testuinguruaren azterketa, kasu-azterketa...), baina ez ditugu inoiz hezkuntza kritiko eta emantzipatzailearen printzipio guztiei erantzutera behartu behar.

Horretarako, bi une ezarri genituen: banakako lanerako lehenengo une bat eta talde txikietan lan egiteko bigarren une bat. Taldekako banaketa antolatzeke, gaien antzekotasunean (ikasleen kasuan) eta laneko espezialitate edo diziplinan (gizarte-eragileen eta unibertsitateko irakasleen kasuan) oinarritu ginen. Kontua zen pertsona guztiek aztertu behar zituztela ikerlan-proposamen guztiak.

2. Fitxa. Hezkuntza Emantzipatzailearen printzipioekiko loturak



Kapitalismoa desnaturalizatzea

Zalantzan jartzea kapitalismoa printzipio kultural unibertsala dela.
Ikuspegi ekosoziala (interdependentzia eta ekodependentzia).
Planeta finituko lurralde-kultura.

Iruditeria kolektiboa deskolonizatzea

Onartzea errealitatea aztertzeko eta ordezeko aukerak proposatzeko dugun modua gure kulturaren mende dagoela.

Kulturartekotasun kritikoa

Kontuan hartzea alderdi kulturalak, desberdinen artean berdintasun-harremanak ezartzea ekidinez.
Arrazakeriaren aurka borrokatzea eta eurozentrismoari aurre egitea.

Feminismo kritikoa

Onartzea errealitaterako hurbilketa gizonek eta emakumeek dituzten posizio desberdinen mende dagoela.
Epistemologia feministak. Feminismo postkolonialak. Mugetatiko feminismoak. Ekofeminismoak.

Ikuspegi interseksionala

Generoan aldi berean aritzen diren askotariko esperientziak eta menderatze-sistemak hautematea (etnia, klasea, dibertsitate funtzionala...).

Ahalduntze-partaidetza

Komunitateak, hots, ikerketako kolektiboak errealitatea eraldatzeko gaitasuna eta ezagutza lortzen ditu.

Subjektu protagonistekiko jakintza-eztabaida sustatzen duen ezagutza kritikoa

Sozialki esanguratsuak diren eta injustizia sozialak eta zapalkuntzak gainditzeko ekintzak sustatzen dituzten edukien inguruan lan egiten duen ezagutza.

Harreman horizontala eta ikaskuntzakoa, ikerketa-prozesuetan.

Elkarrizketa sortzea Unibertsitateko jakintza zientifiko eta humanistikoaren eta mendebaldekoak ez diren kulturen jakintza laiko, herritar, tradizional eta landatarren artean.

Iturria: Hegoako hezkuntza-taldea eta Marta Barandiaran Galdós.

Lan hori egin ondoren, bateratze-lana egin genuen eta talde bakoitzak bere eztabaida eta ekarpenen berri eman zuen. Mintegiko gainerako parte-hartzaileek ekarpenak eta berriz pentsatzeko elementuak gehitu zituzten.



Saioa amaitzean, ikasle bakoitzak ekarpen-multzo interesgarria zuen, taldearen hausnarketa kolektiboaren ondorioz eta, horri esker, gehiago zehaztu ahal izan zuen bere proposamena, hirugarren saiorako. Xedea ahalik eta pentsamendu zehatzena sortzea zen, erabilgarria izan zedin ikerketa-lana prestatu eta garatzeko orduan.

Mintegiaren 3. saioa (2019ko martxoaren 27a)

Saioa hasteko, azken saiorako laneko plana aurkeztu genuen eta GrAL eta MAL prestatzeko lagungarriak izan daitezkeen ohar eta iradokizun labur batzuk egin genituen. Saioaren helburu nagusia zen hausnartzea mintegian landutako GrALek eta MALek zein neurritan erantzuten zieten “3. Fitxa. GrAL/MAL baten oinarrizko egitura orientagarria” fitxan egindako galderari. Horretarako, bi lan uztartu genituen: batetik, banakako lan bat, zeinetan ikasleek beren lanak jarraibide horietatik abiatuta berrikusi eta birpentsatu zituzten; bestetik, talde-lan bat, zeinetan irakasleek eta gizarte-eragileek esperientzia horren garapena eta jarraitutasuna emateko aukerak ebaluatu zituzten. Hausnarketa horretan planteatu zen erronka nagusietako bat gizarte-taldeen arteko lankidetzaren unibertsitateko ikerketa-jardueran sartzeko baldintzak asmatzea izan zen.

3. Fitxa. Gradu Amaierako Lan / Master Amaierako Lan baten oinarrizko egitura orientagarria

Izenburua	Lanaren edukiari egokitzea eta aztertzen den arazoa eta/edo defendatzen den jarrera aipatzea. Izenburu iradokitzailea aurkitzea.
Aurkibide xehea	Lanaren egitura islatzea.
Sarrera	
Gaia formulatu eta zedarritzea	Gaia behar bezala zehaztea, bai eta esparru kronologiko eta espaziala ere.
Aukeratutako gaiaren justifikazioa	<p>Azaltzea zergatik aukeratu den gai hori, zergatik den garrantzitsua edo egokia gai hori gaur egun aztertzea (gai hori hautatzea eragin duten arrazoi pertsonalak sar daitezke).</p> <p>Lanaren gaia xede etiko batekin eta gizarteentzat garrantzi soziala duten egoerekiko konpromisoarekin lotzea. Lanak sortutako ezagutzari esker, errazagoa izango da injustizia soziala, iraunkortasun falta eta ekitate faltako egoerak gainditzeko ekintzak gauzatzea.</p> <p>Interesgarria da jakitea gaiaren aukeraketa ez dela neutrala. Jarrera ideologikoa/epistemologikoa agerian jartzea: errealitate soziala modu kritiko eta eraldatzailean aldatzen laguntzea.</p>

<p>Aukeratutako gaiaren justifikazioa</p>	<p>Hausnartzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 💡 Gaia lan honen ikuspegitik jorratzeak aukera ematen al du gizartea eraldatzeko bideak aztertzeko? 💡 Ikerketaren orientazioak ekarpenik egiten al dio errealitatea aldatzeko xedeari? Lan honetan sortzen den ezagutza esanguratsua al da gizarte-aldaketa horretarako? 💡 Gaia lantzeak ba al du inpakturik pertsonetan eta naturan? Nolakoak? Gure gizarteetako arazo ekosozialei erantzuten die? 💡 Sistema kapitalistari aurre egiteko beharrezkoa den kultura-aldaketari laguntzen al dio nolabait?
<p>Helburuak, galderak eta/edo hipotesiak</p>	<p>Lanarekin lortu nahi diren helburuak, zer jorratu nahi den eta nora heldu nahi den. Era berean, ondoren azterketan berretsiko dugun edo ez dugun galdera garrantzitsuren bat, hipotesiren bat edo kasuren bat planteatu dezakegu. Galderak egiteak frogatu nahi duguna zehazten eta egin beharreko bidea markatzen lagunduko digu.</p> <p>Lanaren helburua arazo sozialei erantzuten dieten konponbideak bilatzearekin lotzea. Interesgarria izan daiteke lanak gai hauetakoren bat aztertu eta jorratzea: emakumeen eta gizonen arteko asimetriak (genero-ikuspegi feminista), kulturartekotasun kritikoren ikuspegia, askotariko menderatze-sistemak (interseksionalitatea)...</p>

Helburuak,
galderak
eta/edo
hipotesiak

Hausnartzeko galderak:

- 💡 Helburu horiei ekiteak aukera ematen du egoera sozialki garrantzitsuak aztertzeko?
- 💡 Lanaren helburuek fenomenoaren arteko mendekotasuna agerian jartzen duen azterketa zehazten dute?
- 💡 Egindako galderak genero-ikuspegian, intersektionalitatean eta kulturartekotasun kritikoan oinarritzen dira?
- 💡 Lanaren helburuen artean ba al dago ezagutzaren sorrerari buruzko kritika deskolonialik?
- 💡 Lanak laguntzen al du aztarna koloniala nola ahaztu pentsatzen?
- 💡 Lanak sakontzen al du pentsamendu androzentrikoaren beharrezko dekonstrukzioan?

Metodologia

Metodologia jakin batzuk erabiltzeak aukera emango du mundua aztertu eta deskribatzeko, baina baita eraldatzeko ere. Metodologiak ere izaera politikoa du.

Erabilitako metodologiak:

- ahotsa eman behar die arazoan nahastuta dauden subjektuei;
- dibertsitatea errespetatu eta ahotsen aniztasuna onartu behar du;
- ikerketaren "subjektu/objektu" etena gaingitu behar du (horizontaltasuna, hierarkia beharrean);
- malgua izan eta ikerlanean nahastutako subjektu eta mugimenduen identitate eta interesei egokituta egon behar du;
- kontuan hartu behar ditu alderdi kulturalak eta berorien ñabardura guztiak jaso behar ditu, eurozentrismoari eta arrazismoari aurre egiteaz gain (kulturarteko metodologiak).



Metodologia

Ikuspegi hori duten metodologia interesgarri batzuk:

- Partaidetzako ikerketa-ekintza (ezagutza taldean sortzea, bizipenetan, esperientzian eta azterketa kritikoan oinarrituta, gizarte-aldaketara bideratuta...).
- Epistemologia feministen esparruaren barruko ikerketa-metodologiak, esaterako, gorputzaren metodologiak (gorputz sexuduna hausnarketaren erdian jartzen dute eta errealitateari buruzko informazioa eta ezagutza lortzeko beste modu batzuk erabiltzen dituzte, zeinak balio epistemikoa ematen dieten emakumeen egunerokotasuna osatzen duten elementuei).
- Boaventura De Sousa Santosek ikerketa-ekintzan sakontzeko proposatzen duen *jakintzen ekologia*. Haren hitzetan, "Jakintzen ekologia ezagutza heterogeneoen aniztasuna ezagutzean oinarritzen da –horietako bat zientzia moderno da–, bai eta beren autonomia arriskuan jarri gabe elkarren artean dituzten etengabeko lotura dinamikoetan ere. Jakintzen ekologiaren oinarrian, ezagutza elkarrekiko ezagutza dela dioen ideia dago". *Jakintzen ekologia* egile beraren *Hegoaldeko epistemologiaren* proposamenetik jaio zen; haren arabera, munduaren ulermena eta eraldaketa mendebaldetik soilik datorrena baino askoz ere zabalagoa da, eta munduaren dibertsitatea amaigabea da.

Metodologia

Hausnartzeko galderak:

- 💡 Zein interes daude ikerketa-lan honek planteatzen duen metodologiaren atzean?
- 💡 Interesik izan al dezakete lanean metodologia feministek?
- 💡 Nola saiatzzen da ikerlana askotariko pentsamenduko eztabaidak ezartzen?
- 💡 Nor dira lan honen subjektu kritikoak, historiaren eraldaketa sozialarekin konprometituta daudenak?
- 💡 Zer ekintza, metodologia, erlazionatzeko modu eta abar garatzen ditu ikerlan honetan sartuta dauden kolektiboen benetako protagonismoa bermatzeko?
- 💡 Zer neurri proposatzen ditu ikerlanean parte hartzen duten pertsonen/kolektiboen arteko botere- eta pribilegio-harremanak saihesteko? Nola garatu daiteke elkarrizketa horizontal hori?
- 💡 Zer rol du dibertsitateak (kulturala, sexuala, generoari dagokiona...) lan honen prozesuan? Nola heldu behar zaio dibertsitateari? Zer aukera eta zailtasun aurreikusten dira?
- 💡 Nola aurreikusi duzu ikerlan honen aurrerapenak komunikatu eta itzultzea?



Lanaren egitura eta garapena

Kontzeptu-
eta/edo teoria-
esparrua



Oinarrizko kontzeptuak, teoriak eta korronteen arteko eztabaidak.

Paradigma zientifiko nagusiak sortutako ezagutza legitimatzen duten premisa epistemologiko nagusiak argi eta garbi zalantzan jartzen dituen kontzeptu-esparrua erabiltzea. Kapitalismoa eta patriarkatua naturalizatzen duten sinesmenak berrikusteko aukera ematen duen kontzeptu-esparrua erabiltzea; halaber, aukera eman behar du sistema hegemonikoa eta berorren zapalkuntza-egiturak kritikatu eta eraldatuko dituzten aukerak aztertzeko. Ildo horretan, generoaren teoria eta oinarri feministen gainean eraikitako ezagutza funtsezkoak dira.

Hausnartzeko galderak:

- 💡 Zer paradigma dago ikerketa-lan honek erabiltzen duen esparru teoriakoaren atzean? (positibista, interpretaziokoa, kritikoa...).
- 💡 Esparru teorikoak egiten al dio kritikarik mendebaldeko paradigma antropozentrikoari?
- 💡 Lanaren oinarriko esparru teorikoak zenbait paradigma epistemologikotatik jasotzen ditu ekarpenak?
- 💡 Lan honek garatzen duen esparru teorikoak agerian jartzen al du pentsamendu androzentriko eta eurozentrikoa deseraiki behar dela? Proposamenak barne hartzen al ditu epistemologia feministak?




Aurrekariak eta testuinguruaren azterketa

Hobeto ulertzeko baldintzak areagotu egiten dira testuingurua sakon eta zorrotz aztertzen bada; horretarako: ikuspegi konplexua izan behar da (feminista, kulturartekoa, interseksionala...), baita globala eta elkarri lotua ere (iparralde-hegoalde logika tradizionala gaindituz, ikuspegi globalizatzailea izan behar da, loturak egiteko, elkarrekintzan ari diren askotariko faktoreetan arreta jarri eta errealitatea osatzen duten elementuen arteko mendekotasunak ikusteko, testuinguru aldakorrean arreta jartzeko...), botere-harremanak eta -dinamikak ulertu behar dira, etab. Testuingurua ikuspegi horietatik azertzeak aukera ematen du azalpen partzial eta sinplistekin amaitzeko, eta arazoa harreman-esparru konplexuagoan ikusteko.

Hausnartzeko galderak:

- 💡 Ikerketa-lanaren edukiak eta beroriek lantzeko moduak laguntzen al diote kapitalismoa desnaturalizatzeko prozesuari?
- 💡 Lanak agerian jartzen al ditu botere-harremanak eta genero-desberdinkeriak?
- 💡 Lan honek aztertzen al du nola genero-desberdinkeriez gain klaseari, etniari eta abarri buruzkoak dauden?
- 💡 Nola islatzen du lanak dauden askotariko zapalkuntzen azterketa eta ulermena?

<p>Ondorioak</p>	<p>Lotura izan behar dute sarreran eta helburuetan planteatutakoarekin, galdera eta hipotesiekin eta gauzatutako azterketarekin.</p> <p>Gomendioak/ondorioak diseinatzean, kontuan hartzea generoen arteko botere-desberdinkeriak eta askotariko zapalkuntzen sistema daudela.</p> <p>Hausnartzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 💡 Lan honetako ikaskuntzek laguntzen al dute errealitatean gertatzen dena aztertze eta ulertze gaitasuna hobetzen, eta sortzen al ditu eraldaketarako ekintza-proposamenak? 💡 Ikerketa honen emaitzek zer neurritan laguntzen dute errealitatea hobeto ulertzen eta eredu kapitalistari aurre egiteko ekintzak identifikatzen? 💡 Zer ekarpen egiten dute lan honen ondorioek, ikuspegi ekosozialetik (interdependentzia eta ekodependentzia)? 💡 Ikerketaren/lanaren ondorioek proposatzen al dute gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak eraldatzeko prozedurarik?
<p>Bibliografia- iturriak</p>	<p>Lanerako erabili diren erreferentzia bibliografikoak eta dokumentuak (hala instituzionalak nola gizarte-erakunde eta -taldeenak).</p> <p>Askotariko iturri eta erreferentziak erabiltzea, mundu osoaren ulermenera hurbiltzeko. Askotariko tokietan ekoizitako dokumentuak, txostenak, artikulua</p>

<p>Bibliografia-iturriak</p>	<p>eta abar erabiltzea (iparraldeko eta hegoaldeko askotariko kulturetako egileak, talde menderatu edo baztertuek eginak, edo haien ikuspegiak eta interesak kontuan hartu dituztenak, emakumeek eta gizonek ekoitziak, ikuspegi feministatik...).</p> <p>Arreta jartzea Donna Harawayk 1995ean sortu zuen “ezagutza kokatuaren” ideari, epistemologia feministaren funtsezko ekarpenetako bat baita. Ezagutza kokatuaren arabera, subjektu modura osatzen gaituzten egoera sozialek gure ikuspegia eta sortzen dugun ezagutza baldintzatzen dute. Ikuspegi horren arabera, errealtatearen irudikapenak beti partzialak dira eta hala interpretatu behar dira.</p> <p>Hausnartzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none">  Nondik datoz lanean erabilitako iturri bibliografikoak? Nor da erreferentzia horien egilea? Emakumezko egileen erreferentziak sartu ditugu? Zer zentzu eta inplikazio ditu?  Badakizu lanean erabilitako erreferentzia bibliografikoak jarrera epistemiko jakin baten ondoriozkoak direla?  Ikerketa-lanak laguntzen al dio nolabait deskolonizazio epistemikoari?
<p>Eranskinak</p>	<p>Mapak, estatistika-taulak...</p>

Iturria: Hegoako hezkuntza-taldea eta Marta Barandiaran Galdós.

Amaitzeko, lana guztien aurrean aurkeztu genuen (ikasleen erronda eta irakasle eta gizarte-eragi-
leen erronda) eta azalpen laburra eman genuen funtsezko erreferentzia bibliografiko batzuei buruz,
hezkuntza kritiko emantzipatzailearen esanahia ezagutzeko.

4. Fitxa. Hezkuntza kritiko eta eraldatzaileako oinarritzko bibliografia

Balash, Marcel et al. (2005). "Investigación crítica: Desafíos y posibilidades". In *Atenea digital* 8. zk. (129.-144. or.). Hemen eskuragarri:

www.researchgate.net/publication/26412663_Investigacion_Critica_Desafios_y_Posibilidades

Del Río Martínez, Amaia eta Gema Celorio Díaz (2018): "Conceptualización de la educación emancipadora". *La educación crítica emancipadora. Diagnóstico en la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) (2011-2015)*. Bilbo, Hegoa. 13.-26. or. Hemen eskuragarri:

<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/388>

García López, Rafaela; Sales Ciges, Auxiliadora et al. (2009). "La formación ética profesional desde la perspectiva del profesorado universitario". *Teoría de la Educación. Revista Interuniversitaria*, 21(1). 199.-221. or. Hemen eskuragarri:

<http://revistas.usal.es/index.php/1130-3743/article/view/3166>

Giroux, Henry A. (2019). *La guerra del neoliberalismo contra la educación superior*. Bartzelona: Herder argitaletxea.



Martínez Martín, Irene eta Gema Ramírez Artiaga (2017). "Des-patriarcalizar y Descolonizar la Educación. Experiencias para una Formación Feminista del Profesorado". *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social (RIEJS)*, 2017, 6(2). 81.-95. or. Hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.15366/riejs2017.6.2.005>

Martínez Martín, Irene (2016). "Construcción de una pedagogía feminista para una ciudadanía transformadora y contra-hegemónica". *Foro de Educación*, 14(20). 129.-151. or. Hemen eskuragarri: <http://dx.doi.org/10.14516/fde.2016.014.020.008>

Pérez Orozco, Amaia (2012). De vidas vivibles y producción imposible. Hemen eskuragarri: www.rebellion.org/noticia.php?id=144215

Rauber, Isabel (2014). "Deskolonizazioa, askapena eta hezkuntza zibilizazio-aldaketarako. Claves sociales, políticas, económicas y culturales desde Latinoamérica. Pedagogías de esperanza" in *Hezkuntza aldatzen, mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde! Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarreko aktak*. Gasteiz. Bilbo, Hegoa. 217.-226. or. Hemen eskuragarri: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/330>

Restrepo, Eduardo (2017). "Imaginar el fin del desarrollo sin las garantías de radicales otredades". In Tatiana Gutiérrez Alarcón et al. *Convergencias y divergencias: hacia educaciones y desarrollos "otros"*. Bogotá, Corporación Universitaria Minuto de Dios - UNIMINUTO. Centro de Educación para el Desarrollo (CED). 19.-40. or. Hemen eskuragarri: www.ram-wan.net/restrepo/documentos/fin-dllo.pdf

Santos, Boaventura de Sousa et al. (2018). *Epistemologías del Sur*. Ciudad Autónoma de Buenos Aires, CLACSO / Coímbra, Centro de Estudios Sociais -CES. 25.-61. or. Hemen eskuragarri: http://biblioteca.clacso.edu.ar/clacso/se/20181124092336/Epistemologias_del_sur_2018.pdf

Santos, Boaventura de Sousa (2006). Una nueva cultura política emancipatoria. *Renovar la teoría crítica y reinventar la emancipación social (Encuentros en Buenos Aires)*. Hemen eskuragarri:

<http://bibliotecavirtual.clacso.org.ar/ar/libros/edicion/santos/Capitulo%20II.pdf>

Santos Gómez, Marcos (2006). "De la verticalidad a la horizontalidad. Reflexiones para una educación emancipadora". *Revista de Ciencias Sociales y Humanidades*, 107. zk. 39.-64. or. Hemen eskuragarri:

<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4027583.pdf>

Torres Carrillo, Alfonso (2009). "Educación popular y paradigmas emancipadores". *Pedagogía y Saberes*, (30), 19.32. Hemen eskuragarri:

<https://doi.org/10.17227/01212494.30pys19.32>

Walsh, Catherine E. (2017). "Pedagogías decoloniales". In Tatiana Gutiérrez Alarcón et al. *Convergencias y divergencias: hacia educaciones y desarrollos "otros"*. Bogotá, Corporación Universitaria Minuto de Dios - UNIMINUTO. Centro de Educación para el Desarrollo (CED). 55.-77. or. Hemen eskuragarri:

<http://catherine-walsh.blogspot.com/2018/01/pedagogias-decoloniales.html>

Walsh, Catherine E. (2014). "Pedagogías decoloniales caminando y preguntando. Notas a Paulo Freire desde Abya Yala". *Revista Entramados*. 1. urtea, 1. zk. 17.-31. or. Hemen eskuragarri:

<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/5251817.pdf>

Amaitzeko, prozesu guztia ebaluatu genuen, eraikuntza kolektiboko esperientzia honen interesa, gogobetetasuna eta hobetzeko arloak jakiteko. Horretarako, oso formatu sinplea eta askea erabili genuen, zeinaren bidez «zoriontzen dut», «kritikatzen dut» eta «proposatzen dut» itemetarako elementuak eta oharrak biltzen diren, eta gero horiek sistematizatu eta ebaluatzen diren.

4. Prozesuari egindako ekarpenak

Atal honetan, gizartea eraldatzeko hezkuntza eraikitzearekin eta/edo GrAL eta MALetan laguntzearekin edo tutore izatearekin lotutako lan-ibilbide handia duten pertsonak lehenengo saioan aurkeztutako ideia batzuk laburbildu ditugu. Honako hauen azalpenak izan genituen: Pepe Ruíz Osoro, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzako hezkuntza-teknikaria⁶; Maitane Cabeza Bastias, Unibertsitate Kritikoa Sareko kidea⁷ eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko hezkuntza-teknikaria⁸; eta Marta Barandiaran Galdós EHUko irakaslea eta ikerkuntza-lanen tutorea den aldetik.

Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzako hezkuntza-teknikari Pepe Ruíz Osorok bi arlotan esku hartu zuen: batetik, bere erakundeak eta antzekoek horrelako ikerketa-lanetan (GrAL eta MAL) egin ditzaketen ekarpenak eta lan honek zabaltzen dituen aukerak azaldu zituen; bestetik, prozesu honetan sartutako ikasleek izan ditzaketen aukerak aipatu zituen.

6 www.euskadi.isf.es

7 www.uks.eus/es

8 www.ongdeuskadi.org/es



Mugarik Gabeko Ingeniaritzak ikerlanei egin diezazkiekeen ekarpenak eta sortzen dituen aukerak:

- Gai berriak zehaztea ikerketa-lanetarako; Mugarik Gabeko Ingeniaritzaren kasuan, erakunde horretako talde aktiboen ekimen eta lanetik sortzen dira. Nabarmentzekoa da Hegoaldeko erakunde aliatuak gauzatzen duen lan garrantzitsua, gizartearen benetako eskariei erantzuten dieten eta errealitatea eraldatzeko gaitasun estrategiko handiagoa duten gaiak identifikatu eta zehazten.
- Lankidetzako eta gizarte-eraldaketako prozesuak gauzatzen diren arloan laguntzea. Prozesu osoari lotura handiagoa eta koherentzia ematen dio.
- GrALak eta MALak Unibertsitatean eragina izateko aukeratzat hartzen dira. Interesgunea gizarte-eraldaketan jartzen duen ikerlan batean laguntzeak duen potentziala aprobetxatzen dute. Aukera bikaina da Unibertsitatean giza beharren zerbitzurako teknologia baten alde lan egiteko, nahiz eta badakiten horrelako prozesuekin batera ikasketa-planak egoten direla (zeinetan arlo teknikoa sustatzen den, hausnarketa kritikoa beharrean).
- Mugarik Gabeko Ingeniaritzaren oinarri soziala hedatu eta zabaltzeko aukera ematen du. GrAL edo MAL bat erakundean prestatzera hurbiltzen direnen gehiengoa erakundearekin lotzen da, azkenean.

Ikasleentzako aukerak:

- Ikasleek teknologia eta ezagutza gizarte-prozesuen zerbitzura jartzeko aukera, ikerketa-lanen birtartez. Nahiz eta gai hori ez duen epaimahaiak ebaluatzen, Mugarik Gabeko Ingeniaritzak uste du titulu akademikoa lortzeaz harago doan prozesu pedagogikoa dela.
- Diziplina anitzeko lan baten garapenean ikertzeko aukera, zeinetan lankidetzarekin, gizarte-eraldaketarekin, ekonomia sozial eta solidarioarekin eta abarrekin lotutako ikuspegiak elkartzen eta osatzen diren.
- Beste kultura batzuekin bizitzeko aukera; horretarako, gure pribilegioak aitortu eta gure ikuspegiak kokatu behar dira, eta aukera ematen du zapalkuntza anizkoitzeko esperientziez jabetzeko (generoaren arlokoak, kolonialak, etab.).
- Laneko etorkizuna justizia sozialaren etikatik birpentsatzeko aukera.

Maitane Cabeza Bastiasek Unibertsitate Kritikoa Sarearen ekimen bat ekarri zuen. Sare hori 2012an hasi zen sortzen Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak unibertsitate publiko kritiko eta konprometitu baten ereduari buruz gidatu zuen hausnarketa-prozesu baten esparruan. Sarea elkarteen munduko askotariko eragileek eta EHUren Gipuzkoako Campuseko zenbait irakasle eta ikasleek osatzen dute. Sarearen helburu nagusia da "unibertsitate mota bat sustatzea, zeinaren kudeaketaren, irakaskuntzaren eta ekoizpen zientifikoaren oinarrian guztion onari ekarpena egiteko ikuspegia dagoen, lurraldeko elkarteetan partaidetzako metodologiaren bidez"; horretarako, uste dute estrategikoa dela sarean lan egitea eta konpromiso honetan nahastutako eragile guztien arteko horizontaltasuna lortzea.

Hauek dira UKS sareak bere ikuspegia gauzatzeko zehaztutako helburu nagusiak:


- Guztion ona lortzeko Unibertsitatearen zentzu kritikotik esku hartzen duten irakasleen lana balioestea.
- Unibertsitateak eraldaketarako tresna modura duen rol soziala berreskuratzea.
- Unibertsitatearen esparrua politizatzea, hezkuntza emantzipatzaileko gune modura, Unibertsitatearen ikuspegi holistikoa defendatuz (arloan kognitiboaz gain, subjektibotasunak eta emozioak); partaidetzako metodologia berritzaileak lantzen diren toki modura; inguruneko bizitzaz kezkatzen den gune modura; unibertsitateko eragileen eta gizarte-eragileen artean proposamen pedagogikoak (GrAL eta MAL) sortzen diren toki modura; eta merezimendu akademikoaren artean gizarte-eragileen jardun aktiboa balioesten den gune modura.

UKS sareak ez du aurrera egin GrAL eta MALetan laguntzeko proposamenean, baina bere hausnarketek lan horiei zentzu kritikoa ematea dute helburu. Adierazten dute haien xede dela gauzatzen diren Gradu Amaierako eta Master Amaierako Lanen “marko teoriko, ikerketa-metodologia eta emaitzen orientazioetan guztion onarekin bat datorren ikuspegi kritikoa” sartzeari, “zertarako eta ezagutza kokatu eta baliagarria sortzeko, zeinak gizartearen eskubide eta askatasunak zabalduko dituen eta gure ingurune natural eta kulturala zaintzea sustatuko duen”.

Marta Barandiaran Galdósek, bere aurkezpenean, gaur egun unibertsitatearen esparruan gertatzen ari diren eztabaidak oso konplexuak direla onartu zuen. Horietako bat “alderdi ekonomikoa” eta “alderdi etikoa” uztartzeari eta horrek unibertsitateko curriculumaren garapenean dituen ondorioei buruzkoa da.

Haren ustez, oztoporik handienetako bat curriculumaren diseinua bera da, zeinak konpetentzia teknikoak lehenesten dituen, subjektu politikoak prestatzearekin eta ahalduntzearekin lotutako konpetentzia kritikoen aldean. Unibertsitateko araudia eta administrazio-mekanismoa ere eragozpen handia dira "curriculum hipotetiko" hori txertatzeko.

Gizartea eraldatzeko prozesu aktiboak sustatzeko bidea luzea eta konplexua dela jakinik, adierazten du ekintzara pasatu behar dela; hezkuntza kritikoko proposamena ofizialki onartzeko eskatu behar dela; curriculum kritikoen garapenarekiko malguak diren administrazio- eta arau-baliabideak eskatu behar direla; lan-ildo horretan konprometitu dauden irakasleen lana aitortu eta hezkuntza-ikuspegi horren zentzurik politikoenarekin bat datozen metodologiak sustatu behar direla.



5. Ondorioak. Prozesuaren ikaskuntza garrantzitsuak

Mintegietan eraiki eta landu ditugun subjektuak, edukiak, metodologia eta ekarpenak deskribatu eta aztertu ostean, esperientzia osoaren ideia eta ikaskuntza batzuk azalduko ditugu, jarraian.

Makro mailan

- Ikerketa-lanek sortzen duten jakintza justizia sozialarekin lotutako gai zabalagoekin lotzea funtsezkoa da agerian jartzeko hezkuntza proiektu handia dela eta gizartea aldatzeko eta mundua eraldatzeko xedea duela.

Ezagutzari buruz

- Kontua da gizartea aldatzeko garrantzitsua den ezagutza ezaugarritzea eta planteamendu epistemologiko nagusien ordezko korranteak aztertzen jarraitzea. Taldeko hausnarketan sortu ziren ezaugarri batzuk: hurbilketa desberdina ahalbidetzen duten errealitatearen ikuspegi konplexu eta kritikoetatik abiatzeko beharra; jarrera ideologikoa agerian jartzearen garrantzia (balorazio-neutraltasunari uko egitea); eta subjektuen subjektibotasunetan eragina izateko interesa, eraldaketarekin konprometitzeko.

Hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegipeko GrAL eta MALei buruz

- Ikerketa kritikoa, zalantzan jartzea eta konpromiso soziala –askotariko subjektuen arteko partaidetza horizontalaren bidez (ikasleak, irakasleak eta gizarte-eragileak)– funtsezko lehengaia dira ezagutzaz harago joan eta mundua eraldatzeko esku hartzen duten ikerketa-lanetan.
- Ikasleen, irakasleen eta gizarte-eragileen jakintzen eta ezagutzen arteko eztabaida gako estrategikoa da ikaskuntza-prozesu horretan. Hezkuntza- eta gizarte-eragileak harreman pedagogiko horizontal batean lankidetzan aritzeko, beharrezkoa da elkar onartzea eta berdintasuna egotea, eta hori ezinbestekoa da taldean pentsatzeko nola sor daitekeen gizarte eraldatzeko kritikoagoa eta garrantzitsuagoa den ezagutza bat, kasu honetan, Gradu Amaierako eta Master Amaierako Lanen bidez.
- Ezagutzen diziplina-artekotasuna aukera ona da, batetik, ikerketa-lan bakoitzeko arazoei ekiteko eta, bestetik, parte-hartzaileen artean loturak eta sinergiak errazteko, ordezko aukerak bilatzeko orduan.

Hezkuntza emantzipatzailearen diskurtsoa osatzen duten jardunbide pedagogikoei buruz

- Hezkuntza-prozesuan, pertsonak (batez ere, ikasleak, kasu honetan) GrAL/MAL bat egiteko jarraibide akademikoen eta orientabide pedagogikoen hartzaille soil modura hartu beharrean, arreta jarri behar da landu beharreko gaiarekin lotuta dituzten interesetan, eta lan hori egiteko orduan dituzten itxaropenak eta beldurrak ulertu behar dira. Ikasleen partaidetza aktiboak garrantzi berezia hartzen du.

- Lankidetzako lan-espazioa identitate kolektiboa sortzen doa, eta beharrezkoa den gizarte-aldaketa eragiteko xede erkideari laguntzen dieten etengabeko artikulazio, ekintza eta esperientzietan bil daitezke.
- Esperientziak eta ekimenak ezagutzeak (hala unibertsitatearen nola gizarte zibil antolatuaren esparruan) ikasleei aukera ematen die gizarte-eraldaketara bideratutako ekintza kolektiboak abiarazteko edo dagoeneko gauzaten ari direnetan parte hartzeko.
- Ikerketa-lan akademiko bat egiteko pentsamendu kolektiboko esperientziak sortzeko aukerak ekintza- eta eragin-eremua sortzen du, elkarlana egon dadin unibertsitateko ikerkuntza-jarduerako logika eta dinamiketan. Ezagutza zientifizistaren eta kultura kapitalistaren ideiak ezegonkortzearen garrantzia.
- Ezagutza partaidetzako eta gizarte-konpromisoko modalitateekin lotzen bada, Unibertsitateko ikasleen protagonismoa eta ahalduntzea indartuko da. Horrelako esperientziei esker, ekintza eraldatzaileko jarrera batetik komunikatzeko, hitz egiteko, idazteko eta ekiteko kompetentzia eta gaitasunak eskuratzen dira eta, aldi berean, subjektu politikoa eraikitzeke proba dira.
- Partaidetzako eta lankidetzako metodologia berritzaile eta sortzaileak erabiltzean, ikasleei protagonismo handiagoa emateko interesa sendotzen da.



Irakasleei dagokienez

- Irakasleek ekitatearekin eta justizia sozialarekin konprometitutako profesional kritiko modura duten rola ezinbestekoa da, uste badugu Unibertsitateak hezkuntza kritikoaren eta gizarte-aldaketaren arteko harremana piztu behar duela.
- Ikasgelako lanari azterketa kritikoa egin behar zaio, irakasleek beren jardunbide profesionalaz eta hezitzaile-rola indartzeko behar dituzten aliantzez hausnar dezaten. Ikasleen ahotsa arretaz entzuteak azterketa hau indartzen du.

- Esperientzia honek, gainera, aukera eman du gizarte-mugimenduen, hezkuntzaren eta Unibertsitate konprometituaren arteko harremanari buruz eztabaidatu eta hausnartzeko.
- EHUren esparruan, eredu hegemonikoarekiko hezkuntza-esperientzia alternatiboa ahalbidetu da.

1. eranskina. Mintegietako parte-hartzaileak

Estudiantes

Xabier Prada Erraiz (Gizarte Hezkuntzako Gradua, EHU).

Eva Pérez-Pons Andrade (Ingeniaritza Elektronikoa Industrial eta Automatikoa, EHU).

Iraide Álvarez Muguruza (Feminismo eta Genero Ikasketen Masterra, EHU).

Urtzi Goikoetxea Villarmarzo (Irakasleen Prestakuntzako Masterra, EHU).

Julián Márquez Morín (Hegoa Institutuaren Garapeneko Ikasketen Doktoregoko Programa, EHU).

Guisella Andrea Lara Veloza (Hegoa Institutuaren Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako Masterra, EHU).

Ane Armentia Maqueda (Hegoa Institutuaren Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako Masterra, EHU).

Laura Andrés Felices (Hegoa Institutuaren Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako Masterra, EHU).

Violeta Aguado Delgado (Hegoa Institutuaren Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako Masterra, EHU).

Arrate Rojas Sarasqueta (Hegoa Institutuaren Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako Masterra, EHU).

Leire Vázquez Orobio (Hegoa Institutuaren Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako Masterra, EHU).



Irakasleak

Marta Barandiaran Galdós (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Elkano, EHU).

Iratxe Pérez Urdiales (Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, EHU).

Joseba Sainz de Murieta Mangado (Bilboko Ingeniaritza Eskola, EHU).

M^a Luz de la Cal Barredo (Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea, EHU).

Iratxe Amiano Bonachea (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Sarriko, EHU).

Asier Arcos Alonso (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Donostia, EHU).

Gizarte-eragileak

Maitane Cabeza Bastias (Unibertsitate Kritikoa Sarea eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundea).

Pepe Ruíz Osoro (Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzak).

Alberto Gastón Dapena (Emaús Gizarte Fundazioa).

Amaia Ibarondo Bizan (Emaús Gizarte Fundazioa).